INDARTUZ KAPITALA SA SOZIETATE PUBLIKOAREN ESTATUTU SOZIALAK

I. TITULUA

SOZIETATEAREN IZENA, XEDEA, HELBIDEA ETA IRAUPENA

1. artikulua.- Izen soziala eta araubide juridikoa.

1.- Honako hau izango da sozietatearen izena: INDARTUZ KAPITALA SA.

2. - Honako arau hauek erregulatzen dute aipatutako sozietatea: estatutu hauek, gobernu- eta administrazio-organoek baliozkotasunez hartutako erabakiak, eta, halakorik ezean, Kapital Sozietateen Legearen testu bategina, uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua, eta aplikatzekoak diren edo etorkizunean haiek ordezten dituzten indarreko gainerako xedapenak.

3.- Gainera, sozietateari honako lege hau ere aplikatuko zaio: 3/2022 Legea, maiatzaren 12koa, Euskal Sektore Publikoarena.

2. artikulua.- Sozietatearen xedea.

1.– Sozietatearen xede soziala da Euskadiko ekonomia eraldatzeko inbertsio-lerroak finantzatzea, batez ere sektore zientifiko-teknologikoari, sektore energetikoari, enpresa-sektoreari eta industriari zuzenean eragiten dietenak.

2.– Horri lotuta, azalpen orokor gisa betiere, sozietateak honela bete dezake xede soziala: edozein zor-tresna edo finantza-tresna —hala nola maileguak, itzuli beharreko aurrerakinak, bonuak, abalak, bermeak (hemendik aurrera, **finantza-tresnak**)— lagaz, kudeatuz, eskuratuz edo haietan parte hartuz; bere kontura zuzenean edo zeharka eskuratuz, besterenduz, edukiz eta administratuz nortasun juridikoa duten edo halakorik ez duten sozietateen edo erakundeen akzioak, sozietate-partizipazioak, kuotak eta sozietateen kapitalean parte hartzeko beste edozein era edo interes edo akzio, sozietate-partizipazio, kuota, partaidetza eta errenta finkoko edo intereseko balio horiek eskuratzeko eskubidea ematen duten tituluak (hemendik aurrera, **partaidetza-eskuratzeak**), eta sozietate edo erakunde horiek zuzenean edo zeharka administratuz, kudeatuz eta zuzenduz, haiek gobernatzeko eta kudeatzeko edozein organotako kide izanez, haietan parte hartuz eta haietan karguren bat betez.

Aurrerantzean, estatutu hauen ondorioetarako, "**inbertsioak**" esango da sozietatearen xedea betetzeko erabiliko diren finantza-tresnak eta partaidetza-eskuratzeak aipatzeko, denak batera.

3.- Xede horren barruan sartzen dira, halaber, sozietatearen helburuak eta jarduerak betetzeko beharrezkoak edo egokiak diren jarduera osagarri guztiak.

4.– Sozietateak zuzenean edo zeharka egin ahal izango ditu jarduera horiek, denak edo batzuk, xede bera, antzekoa edo lotutakoa (esaterako, sektore zientifiko-teknologikoan,

enpresa-sektorean eta industria-sektorean zuzeneko eragina duten inbertsioak egitea) duten beste sozietate batzuen partaidetzen bidez.

3. artikulua.- Egoitza.

1.– Sozietatearen egoitza Bilboko La Bolsa eraikinean egongo da, Jose Maria Olabarri kaleko 1. zenbakiko 3. solairuan, 48001 Bilbo (Bizkaia).

2.– Administrazio Kontseilua arduratuko da sozietatearen egoitza aldatzeaz . Halaber, enpresaren jarduerarako beharrezkoa edo egokia bada, Administrazio Kontseilua arduratuko da sukurtsalak, agentziak edo ordezkaritzak sortzeaz, ezabatzeaz eta lekualdatzeaz, lurralde nazionalean zein kanpoan.

4. artikulua.– Iraupena.

Sozietatearen iraupena mugagabea da, eta eratzeko eskritura publikoa taxutzen den egunean hasiko ditu eragiketak.

II. TITULUA

INBERTSIO-POLITIKA

5. artikulua.- Inbertsio-politika.

1. – Sozietatearen inbertsio-politikak bat etorri behar du Eusko Jaurlaritzak Euskadiko ekonomia eraldatzeko prestatzen dituen industrializazio-politikekin, finantza-politikekin eta kreditu publikoaren inguruko politikekin. Beraz, inbertsio-politika etengabe egokitu beharko da aldiko inguruabar ekonomiko, industrial eta finantzarioetara; inguruabar horiek zehaztuko dute nolako inbertsioak diren egokiak.

Horren ildotik, sozietatearen akziodunen biltzar orokorrak noiznahi aldatu ahal izango du inbertsio-politika, estatutu hauetan orientazio orokor modura biltzen dena, beharrezko egokitzapenak egiteko.

2.– Inbertsio-politikaren barruan, honako hauek agertu behar dira: zer irizpide erabili finantza-tresnetan zein partaidetza-eskuratzeetan inbertitzeko eta desinbertitzeko, eta zein diren sozietatearen organoetan parte hartzeko jarraibideak eta partaidetzapeko sozietateetan erabakiak hartzeko jarraibideak. Irizpide horietan, kontuan eduki beharko dira gardentasunaren printzipioak eta gobernu onaren arauak, bai eta Estatuaren laguntzen arloan aplikatu beharreko Europako araudia ere.

I. KAPITULUA

INBERTITZEKO ETA DESINBERTITZEKO IRIZPIDEAK

6. artikulua.– Estatuaren laguntzen arloko Europako araudia nola aplikatu. Gardentasuna.

1.- Inbertsioak egiteko, aplikatu beharko da Estatuaren laguntzen arloan aplikatu beharreko Europako araudia, partaidetzapeko enpresei ez emateko Estatuaren laguntzatzat har daitezkeen abantailak; beti ere, Batzordearen Estatuko laguntzaren kontzeptuari buruzko Jakinarazpenean (2016/c 262/01) eta arrisku-finantzaketako inbertsioak sustatzeko estatu-laguntzei buruzko Batzordearen Jakinarazpenean (2014/c 19/04) edo Europako araudian ezartzen denaren arabera.

2.- Inbertsio-politika gardena izango da, bai inbertsioa egiteko hasierako erabakia hartzean, bai partaidetzen indarraldian edo haiek edukitzen diren bitartean. Memori bat argitaratuko da, jasoko duena urtean egindako inbertsio guztien zerrenda.

7. artikulua.- Inbertsio-lerroak finantzatzeko irizpideak.

7.1. Finantza-tresnen inguruko irizpideak.

Honako irizpide hauek aplikatuko dira finantza-tresnak aztertzeko eta baloratzeko prozesuan:

1) Onuradunaren forma juridikoa: indarreko merkataritzako legerian agertzen diren guztiak, hauek barne: enpresaburu indibiduala edo autonomoa, kapital-sozietateak, kooperatibak, fundazioak, elkar bermatzeko sozietateak, kreditu-erakunde finantzarioak eta finantza-merkatuetan edo antzekoetan jarduten duten erakundeak, inbertsio kolektiboko erakundeak eta arrisku-kapitaleko erakundeak edo funtsak.

2) Eragina: Kontuan hartuko da ea finantzatutako inbertsioak eragina sortzen duen eremu hauetan:

- Enplegua: lanpostu egonkorrak eta kalitateak sortzea eta/edo mantentzea.
- Balio-katea: tokiko hornidura-katea sendotzea, Euskadiko hornitzaileak kontratatzea.
- Zerga-ekarpena: zerga-erretornuak sortzea EAEn.
- Jasangarritasuna: IGG irizpideak aplikatzea (ingurumena, gizartea eta gobernantza), batez ere finantzaketa-lerroan berariaz agertzen bada.

Lehentasuna emango zaio EAEn ezarrita dauden proiektuak finantzatzeari. Arrazoiak azalduz gero, EAEtik kanpoko inbertsioak finantzatu ahal izango dira zenbait kasutan:

- Euskadin erretornua sortzen dutenean, zuzenean edo zeharka: enplegua, garapen industriala edo garapen teknologikoa.

- Lotura dutenean jarduera zabaltzen duten EAEko enpresekin, EAEko enpresa nagusia indartzen dutenekin, edo EAEko ekosisteman trakzio-efektua eragiten duten enpresekin.

3) Bideragarritasun ekonomiko-finantzarioa: Aztertuko da eskatzaileak nolako kaudimena daukan eta nolako gaitasuna daukan ordaintzeko; analisian honako hauek hartuko dira kontuan:

- Negozio-plana, jakiteko ea funtsak beharrezkoak diren eta zertarako erabiliko diren.

- Finantza-proiekzioak, jakiteko ea hipotesi errealistekin egin diren.

- Koherentziarik dagoen ala ez amortizazio-aldiaren, sarrera-iturrien eta finantzatutako aktiboaren edo inbertsioaren bizitza erabilgarriaren artean.

4) Kaudimena eta integritatea: Onuraduna ezin da egon egoera hauetan:

- Ezin du eduki aurrekari penalik ez administrazio-zehapenik, finantzaketa publikoa eskuratu ahal izatea mugatzen duenik.

- Ezin da egon krisian, Batasunaren definizioaren arabera.

- Ezin du larriki eta ageri-agerian hautsi lege-irizpiderik, irizpide ekikorik edo jasangarritasun-irizpiderik, araudi aplikagarrian edo sozietatearen beraren estatutuetan ezarritakorik.

- Ezin du eduki gobernantza- edo ospe-arazo larririk, zalantzan jar dezakeenik inbertsioaren bideragarritasuna edo sozietatearen irudi publikoa.

- Ezin da egon konkurtso-prozesu batean, eta ezin ditu bete konkurtsoan dagoela deklaratzeko eskakizunak.

- Ezin du eduki ordaindu gabeko zorrik, ez Ogasunarekin, ez Gizarte Segurantzarekin.

- Ezin du eduki Administrazioari egin beharreko itzulketarik.

5) Baldintzak eta bermeak: Eragiketak egokitu beharko dira lerro bakoitzean ezartzen diren irizpideetara (zenbatekoa, epea, ezaldia...).

Bermeak eskatu ahal izango dira (errealak, pertsonalak, abalak...) onuradunaren arrisku-profilaren arabera, inbertsioaren izaeraren arabera eta ordainketa-planaren bideragarritasunaren arabera.

Proposatzen diren eragiketek finantzabideak jarri behar dituzte eskuragarri, baina merkatuaren egoera aldatu gabe.

6) Funtsen xedea: Honako hauek izan daitezke finantzaketaren xedeak: ekoizpen-inbertsioak, hazkuntza, berrikuntza, jasangarritasuna, internazionalizazioa, digitalizazioa, trantsizio energetikoa, industria-eskala, antolamendua eraldatzea edo Eusko Jaurlaritzaren eta FEIren lehentasun estrategikoekin bat datozen gainerako helburu guztiak.

Ez dira finantzatuko baztertutako sektoretako inbertsioak, ez eta printzipio etikoak, sozialak edo ingurumenekoak urratzen dituzten jarduerak ere.

7) Arriskua dibertsifikatzea: Arriskua ez da gehiegi bildu behar enpresa edo sektore bakar batean. Oro har:

- Enpresa bakar bati ez zaio emango Funtsaren finantzabide guztien % 20 baino gehiago.
- Jarduera-sektore bakar batean ez da erabiliko Funtsaren finantzabide guztien % 40 baino gehiago, non eta organo eskudunak ez duen ematen berariazko baimena, arrazoi estrategikoak azalduta.

7.2. Partaidetza-eskuratzeen inguruko irizpideak.

Honako irizpide hauek aplikatuko dira partaidetza-eskuratzeak aztertzeko eta baloratzeko prozesuan:

1) Forma juridikoa: Kapital Sozietateen Legearen testu bateginean agertzen diren guztiak, egoitza EAEn duten kooperatibak, fundazioak, elkar bermatzeko sozietateak, kreditu-erakunde finantzarioak eta finantza-merkatuetan edo antzekoetan jarduten duten erakundeak, inbertsio kolektiboko erakundeak eta arrisku-kapitaleko erakundeak edo funtsak.

2) Eragina: Partaidetza-eskuratzeak baloratzeko, Sozietateak kontuan hartuko ditu eraginaren eta jasangarritasunaren inguruko irizpide hauek:

- Zer balio ekonomiko eta sozial sortzen duten: Zer balio ekonomiko eta sozial sortzen duten zuzenean edo zeharka, hala nola, besteak beste: ea kalitateko lanposturik sortuko eta mantenduko den, ea inbertsiorik erakarriko den, zer zerga-ekarpen egingo den, eta ea tokiko hornidura-katea sendotuko den tokiko hornitzaileak kontratatuta.
- IGG faktoreak (ingurumena, gizartea eta gobernantza): Inbertsioak hautatzeko, jasangarritasun-irizpideak eta IGG irizpideak ezarriko dirabai funtsetan, bai enpresetan.
- Inbertsioen kokapen geografikoa. Lehentasuna edukiko dute egoitza soziala edo eragiketa-zentro nagusia Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) dute

enpresetan egiten diren inbertsioek. Nolanahi ere, aintzat hartuko da zer inbertsio egiten duten EAEtik kanpoko enpresetan (nazionaletan zein nazioartekoetan), baldin eta inbertsio estrategikoak egiten badituzte Euskadin edo, partaidetza-eskuratzearen ondorioz, EAEn ezartzen badute egoitza soziala edo erabakiak hartzeko zentroa.

Funtsetan inbertitzeko, nahiz eta kontuan eduki ea kudeatzailearen egoitza Euskadin dagoen, ezinbestekoa izango da funtsak bermatzea lurralde horretan egiten duen inbertsioak gutxieneko biderkadura izango duela.

3) Bideragarritasun ekonomiko-finantzarioa. Analisia, ibilbidea eta Due Diligence:

- Txosten ekonomiko-finantzarioa eta ekarpen erregionala: Eragiketa bat egin aurretik, txosten ekonomiko-finantzarioa eskatuko da, arrazoiak emanez balioesten duena zenbatekoa izango den inbertsioaren etekin ekonomikoa eta ea jasangarria izango den finantzen aldetik. Gainera, txosten horretan, inbertsioak Euskadiko gizarteari eta ekonomiari egingo dien ekarpenaren nolabaiteko ebidentziak eman behar dira.

- Enpresaren eta kudeaketa taldearen ibilbidea. Enpresen partaidetzak eskuratzean, lehentasuna emango zaie ibilbidean zehar finantza-sendotasuna eta errentagarritasuna izan dituzten enpresetako inbertsioei. Funtsetan inbertitzean, kontuan edukiko da ea kudeaketa taldeak arrakasta izan duen aurretik, ea bat datorren sozietatearen helburu sozioekonomikoarekin, eta ea arrakastarik izan duen aurreko beste funts batzuetan (altxatutako funtsak eta desinbertituak barne).

- Plan estrategikoa: Plangintza estrategiko argia eta xehatua eduki beharko da, enpresa-estrategiaren berri ematen duena eta negozio-plan sendoa daukana.

- Due Diligence: Due Diligence prozesu bat egingo da; haren barnean, lege-arriskuak eta finantza-arriskuak aztertuko dira inbertsio-eragiketa bat egin aurretik.

4) Kaudimena eta integritatea: Onuraduna ezin da egon egoera hauetan:

- Ezin du eduki aurrekari penalik ez administrazio-zehapenik, finantzaketa publikoa eskuratu ahal izatea mugatzen duenik.

- Ezin da egon krisian, Batasunaren definizioaren arabera.

- Ezin du larriki eta ageri-agerian hautsi lege-irizpiderik, irizpide ekikorik edo jasangarritasun-irizpiderik, araudi aplikagarrian edo sozietatearen beraren estatutuetan ezarritakorik.

- Ezin du eduki gobernantza- edo ospe-arazo larririk, zalantzan jar dezakeenik inbertsioaren bideragarritasuna edo sozietatearen irudi publikoa.

- Ezin da egon konkurtso-prozesu batean, eta ezin ditu bete konkurtsoan dagoela deklaratzeko eskakizunak.

- Ezin du eduki ordaindu gabeko zorrik, ez Ogasunarekin, ez Gizarte Segurantzarekin.

- Ezin du eduki Administrazioari egin beharreko itzulketarik.

5) Arriskua dibertsifikatzea: Zorroaren arriskua dibertsifikatuta egon dadin, sozietateak ez du bilduko zorroko guztirako kapital sozialaren % 20 baino gehiago sozietate baten kapital sozialean, ez eta zorroko guztirako zenbatekoaren % 40 baino gehiago sektore-eremu batean. Nolanahi ere, ezohiko kasuetan, eta administrazio-organoak baimen arrazoitua eman ondoren, sozietate batean eskuratzen den partaidetza aurreko portzentajeak baino handiagoa izan ahal izango da, garrantzi bereziko "erronka" enpresarial bati laguntzeko, Euskal Autonomia Erkidegoan mozkin ekonomiko estrategikoa sor dezan. Halakoetan, negozio-planean ezarri beharko da zenbat denbora beharko den partaidetza-eskuratzea aipatutako portzentaje-mugetara egokitzeko (epe laburra edo epe ertaina).

Ezin izango da eduki partaidetzarik alde ekonomiko bereko zenbait enpresatan aldi berean, salbu administrazio-organoak berariazko baimen arrazoitua ematen duenean aparteko kasuetan, hain zuzen ere arrazoi estrategikoek edo interes publikoak bultzatuta, eta horrela ez bada arriskua gehiegi kontzentratzen.

6) Partaidetza eta koinbertsioak beste erakunde batzuekin.

i. Sozietate baten kapitaleko partaidetza haren ezaugarrien eta eragiketaren araberakoa izango da. Nolanahi ere, inolaz ere ez da izango sozietatearen kapitalaren % 49 baino handiagoa.

ii. Sozietateak inbertsio-funtsetan daukan partaidetza publikoa, gehienez ere, funtsaren guztirako partaidetza % 49 izan daiteke, eta gehieneko zenbatekoa 200 milioi euro.

Koinbertsioa funtsezko tresna estrategikotzat hartzen da hurbiletik monitorizatzeko nolako bilakaera duten enpresek, zeinek Euskadiko partaidetza baitute, zuzenean edo inbertitzen dugun funtsen bidez. Jarrera proaktibo honi esker bermatu ahal izango da enpresa horiek haztea eta sendo errotzea, eta, azken batean, EAEko sare ekonomiko-industriala indartzea eta suspertzea bultzatuko da.

7) Jarraipen-inbertsioak eraldakuntzarako proiektuetan: Erabakitzen bada zorroaren barruan eraldakuntzarako inbertsio estrategikoak egitea, Sozietateak ahalmena edukiko du hasierako partaidetza handitzeko jarraipen-inbertsioen bidez. Inbertsio gehigarri horien helburua izango da laguntzea proiektua garatzen eta erabat sendotu arte eskalatzen. Nolanahi ere, hasierako inbertsioaren eta ondoko inbertsioen baturak ezin izango ditu gainditu aurreko artikuluetan aipatutako partaidetza-mugak eta dibertsifikazio-mugak.

8. artikulua.– Desinbertitzeko irizpideak.

8.1 Finantza-tresnen inguruko irizpideak.

Oro har, finantza-tresnak indarrean egongo dira haiek emateko baldintzetan ezartzen den aldian. Baldintza horietan zehaztuko da zein diren finantza-tresna aldez aurretik azkentzeko arrazoiak, finantzaketa-motaren arabera eta gainerako inguruabarrak kontuan hartuta.

8.2 Partaidetza-eskuratzeen inguruko irizpideak.

1.– Partaidetzapeko sozietateak ez badu kotizatzen, ahaleginak egingo dira harekin akziodunen arteko ituna egiteko, halako moldez non irteteko modua arautzen den, dela akzioak edo partaidetzak saltzeko aukera baten bidez, dela beste mekanismo baliagarri baten bidez.

2.– Kotizatutako sozietateen kasuan, haien akzioak besterendu egingo dira merkatura joz.

3.– Kooperatiben kasuan, sarrera egiten den unean akordio bat finkatuko da, borondatezko baja edozein unetan hartzeko aukera jasotzen duena, eta kapital sozialerako ekarpenak itzultzeko eskubidearekin eta kenkarietarako aukerarik gabe egingo dira bajaren kasuan, kasu zehatz horretarako beste akordio mota bat behar denean izan ezik.

4.– Oro har, partaidetzapeko sozietatearen kapitalean jarraituko dugu luzerako, edo kapitalean sartzeko oinarria izango den negozio-plana egin arte. Hala ere, partaidetzapeko enpresaren kapitalean irteera aurreratua dakarten inguruabar jakin batzuk gerta daitezke, hala nola enpresaren edo establezimendu iraunkorraren zerga-egoitza aldatzea, erabat aldatzea jarduera, estrategia edo akziodunen osaera, plan estrategikoan ezarritako konpromisoak ez betetzea, legezko arriskuren bat gauzatzea, partaidetzapeko enpresaren jabetzaren titulartasuna aldatzea edo akziodunen itunean edo, kooperatiba izanez gero, sartzeko aurretiazko akordioan jasotako betebeharrak ez betetzea.

II. KAPITULUA

INBERTSIOETAN JARDUTEKO ETA HAIEN JARRAIPENA EGITEKO JARRAIBIDEAK

9. artikulua.– Jarduteko eta jarraipena egiteko jarraibideak.

1.- Ahaleginak egingo dira finantza-tresnetan ezartzeko inbertsioaren indarraldian jarraipena egiteko mekanismoak egon behar direla (ad.: aldizkako reportinga, mugarriak eta/edo auditoretzak bete beharra), bai eta sozietateak parte har dezakeen aholku-organoak edo jarraipen-organoak ere. Gainera, behar izanez gero, arautuko da nola hartuko duen parte sozietateak kudeaketa-organoetan.

Halaber, zenbatekoa (osoa edo zati bat) ordaintzea honen baldintzapean ipini daiteke: eragin-helburuak lortzea edo aurretiazko baldintzak betetzea.

2.- Enpresa batean partaidetza eskuratzen denean, ahaleginak egingo dira administrazio-organoan ordezkari bat izendatzeko. Ordezkari horrek gaitasun, esperientzia eta kualifikazio egokiak eduki beharko ditu, bai eta bere eginkizunak betetzeko behar diren prestasuna eta jarrera ere. Ordezkariak ezingo du, inola ere, Finantzen Euskal Institututik edo sozietatetik ez datorren ordainsaririk edo dietarik jaso.

10. artikulua.– Akziodunen ituna partaidetza-eskuratzeetan.

Kasu jakin batzuetan eta kotizatu gabeko sozietateen kasuan, gerta liteke zehaztea, norbait administrazio-organoko kide izendatzearekin batera, akziodunen itun bat sinatu beharko dela sozietate batean partaidetza eskuratzeko. Itun horrek betebehar jakin batzuk ezarriko ditu, hala nola: luzerako irautea eta akzioen eskualdaketa eta salerosketako aukerak aldi batez ezin egitea; gehiengo kualifikatua ezinbesteko izatea akziodunen batzar orokorrak akordioak hartzeko; administrazio organoa eratu beharra; kontu jakin batzuek oraindik eta gehiengo handiagoa behar izatea administrazio organoaren onespena izango badute; akzioak nahieran transmititzeari mugak jartzea; partaidetzapeko sozietateari exijitzea partaidetza eskuratzeko jarritako baldintzak beti bete beharko dituela edo partaidetzapeko sozietatearen jarraipena egiteko dokumentazioa bidal dezala.

III. TITULUA

KAPITAL SOZIALA ETA AKZIOAK

11. artikulua.- Sozietatearen kapitala.

1.– Sozietatearen kapitala BERREHUN ETA HIRUROGEI MILIOI (260.000.000) euro da, eta 2.600 akzio arrunt eta izendunetan adierazia dago; akzioak klase eta serie bakarrekoak dira, bakoitza EHUN MILA (100.000) euroko balio nominalarekin, eta zenbaki korrelatiboak dituzte, 1etik 2.600era (biak barne), eskubide politiko eta ekonomiko berberak, eta tituluen bidez emanda daude.

2.– Akzioak erabat harpidetuta eta % 25 ordainduta daude. Ordaindu gabeko % 75era iritsi arteko ordainketak diruzko ekarpenen bidez egingo dira, bost urte igaro baino lehen; administrazio-organoak zehaztuko ditu egunak eta zenbatekoak.

3.- Akzioak izendunak izango dira eta tituluen bidez adieraziko dira (titulu batean serie bereko akzio bat edo batzuk egon daitezke). Akzioak zenbaki korrelatiboak edukiko dituzte, txeketegi-liburuetan emango dira eta, gutxienez, Legean eskatzen diren aipamenak edukiko dituzte. Sozietateak akzio izendunen erregistro-liburuan arteztuko ditu akzioak, eta liburua merkataritza erregistroan ondo legeztatuta egon beharko da. Bertan transferentzien idatzoharrak egingo dira, bai eta eskubide errealen eta haien

gaineko beste karga batzuen idatzoharrak ere. Sozietateak liburu horretan inskribatutakoak soilik hartuko ditu akzioduntzat.

4.- Akzio baten edo gehiagoren titularra izateak bazkidetza ematen duenez, titularrek Legeak nahiz estatutu hauetan ezarritako eskubideak edukiko dituzte.

12. artikulua.– Akzioak aske eskualdatzeko murrizketak.

Sozietatearen akzioak eskualdatzearen inguruko guztirako Kapital Sozietateen Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuan eta aplikatu beharreko gainerako araudi guztietan xedatzen dena bete beharko da.

13. artikulua.- Eroslehentasun-eskubidea nahitaezko eskualdatzeetan.

Akzioak lehentasunez erosteko eskubidea erabiltzen bada nahitaezko «inter vivos» eskualdatze baten ondorioz (bide judizialean zein administratiboan) eta haien balioaren inguruan desadostasuna badago, balioa ezartzeaz aditu independentea arduratuko da, sozietatearen auditorea ez beste bat, zeinahi interesdunak eskatu eta sozietatearen administratzaileek berariaz izendatzen dutena.

IV. TITULUA

SOZIETATEAREN GOBERNU- ETA KUDEAKETA-ORGANOAK.

14. artikulua.– Sozietatearen organoak.

Sozietatearen gobernua eta kudeaketa honako organo hauek eramango dute:

a) Akziodunen Batzar Orokorrak.

b) Administrazio-organoak.

I. KAPITULUA

AKZIODUNEN BATZAR OROKORRA

15. artikulua.- Batzarraren erabakien izaera eta nahitaezkotasuna.

Sozietatearen organo soberanoa akziodunen batzar orokorra da, behar bezala deitu eta eratuz gero. Erabakiak, baliozko izateko moduan hartuz gero, bete beharrekoak izango dira akziodun guztientzat, baita absenteentzat eta disidenteentzat ere, legeak bazkideei ematen dizkien eskubideak gorabehera.

16. artikulua.- Batzar orokorren motak. Karguak.

1.– Batzar orokorrak ohikoak edo ezohikoak izan daitezke. Deialdiak eta saioak Kapital Sozietateen Legeak V. tituluan ezartzen duenari jarraikiz egingo dira. Gainera, horrek berak arautuko ditu deialdi-eskaerak, eraketak, informazioa jasotzeko eskubidea, eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko modua, eta estatutu hauetan ezartzen ez den guztia.

2.- Ohiko batzar orokorra ekitaldi bakoitzeko lehenengo sei hilabeteen barruan batuko da, sozietatearen kudeaketa eta aurreko ekitaldiko kontuak onartzeko (edo ez) eta emaitzak nola aplikatu erabakitzeko. Batzar orokorraren gainerako bilkura guztiak ezohikoak izango dira.

3.– Batzarretako burua eta idazkaria administrazio kontseiluan kargu horietan ari direnak izango dira, baldin eta administrazio kontseilua bada sozietatearen administrazio organoa; bestela, batzar bakoitzak kargu horietarako izendatzen dituenak izango dira.

4.- Berariazko deialdirik egin gabe ere, batzar orokorra behar bezala deituta eta eratuta geratuko da edozein gai aztertzeko, baldin eta sozietatearen kapital osoa bertan ordezkatuta badago eta bertaratutakoek aho batez erabakitzen badute batzar orokorra egitea, denek aho batez onartutako gai-zerrendaren arabera.

17. artikulua.- Batzar orokorretara bertaratzea.

1.– Akziodun guztiek edukiko dute batzar orokorretara joateko eskubidea, ohikoetara zein ezohikoetara, eta hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea ere edukiko dute, edo beste pertsona baten bidez ordezkatzekoa.

2.- Bazkide ez diren administrazio kontseiluko kideek batzar orokorrera joan behar dute. Hitza izango dute, baina botorik ez.

3.– Batzar orokorrak baimena eman ahal izango die bazkide ez direnei batzarrera joateko. Batzarrean hitza izango dute, baina botorik ez. Halakoetan, pertsona bat gai-zerrendako puntu jakin bati buruzko informazioa emateko badoa batzarrera, gai hori eztabaidatzen den artean bakarrik egongo da bertan.

18 artikulua.- Akziodunen batzar orokorraren eskudantziak.

Batzar orokorrak eskudantzia hauek dauzka: Kapital Sozietateen Legeak ematen dizkion guztiak eta, oro har, sozietatearen jarduera egiteko behar diren guztiak, eta, bereziki:

a) Urteko kontuak onartzea, emaitza aplikatzea eta kudeaketa soziala onartzea.

b) Administratzaileak, likidatzaileak eta, behar denean, kontu-auditoreak izendatzea eta kargugabetzea.

c) Sozietatearen estatutuak aldatzea, egoitza soziala izan ezik, hori administrazio-organoaren eskumenekoa da eta.

d) Kapital soziala gehitzea eta urritzea.

e) Lehentasunezko harpidetza-eskubidea eta lehentasunezko bereganatze-eskubidea ezabatzea edo mugatzea.

f) Funtsezko aktiboak erostea, besterentzea edo beste sozietate bati ekarpena egitea. Aktiboa funtsezkoa dela jotzen da eragiketaren zenbatekoak onartutako azken balantzean agertzen diren aktiboen balioaren ehuneko hogeita bosta gainditzen duenean.

g) Aktiboa eta pasiboa eraldatzea, fusionatzea, zatitzea edo lagapen orokorra egitea, eta egoitza atzerrira eramatea.

h) Sozietatea desegitea.

i) Likidazioaren azken balantzea onartzea.

j) Inbertsio-politika onartzea, bai eta finantzatuko diren inbertsio-lerroak ere, eta inbertsioen baldintza orokorrak ezartzea, xede sozialean ezartzen denarekin bat etorriz.

k) Kapital Sozietateen Legeak batzar orokorrari esleitzen dizkion gainerako gai guztiak.

II. KAPITULUA

ADMINISTRAZIO-ORGANOA

19. artikulua.- Administrazioa antolatzeko moduak.

Batzar orokorrak kasu bakoitzean erabakitzen duenaren arabera, honako hauek arduratuko dira sozietatearen administrazioaz eta zuzendaritzaz:

a) Administratzaile bakarra.

b) Bi administratzaile solidario.

c) Bi administratzaile mankomunatu.

d) Administrazio kontseilua.

Sozietatearen ordezkaritza, judizioetan zein bestela, administrazioak edukiko du. Enpresaren jardueraren eta trafikoaren barruan, xede soziala betetzeko, administrazioak inolako mugarik gabe erabiliko ditu legez edo estatutuen arabera bazkideen batzar orokorrarenak ez diren ahalmen guztiak.

Beraz, denetariko egintzak, negozio juridikoak eta kontratuak egin ahal izango ditu denetariko ondasunak administratzeko, xedatzeko, kargatzeko eta haien jabari hertsia kudeatzeko.

20. artikulua.– Izendapena.

1.- Batzar orokorrak baino ez dauka administratzaileak edo kontseilariak izendatzeko eskumena.

2.- Administratzailea edo kontseilaria izateko ez da beharrezkoa izango bazkidea izatea.

21. artikulua.- Karguaren iraupena.

Administratzaile edo kontseilari izendapenaren iraupena bost urtekoa izango da, izendapenetik kontatzen hasita. Kargudunak berriz ere hautatu ahal izango dira kargurako, behin zein zenbait alditan, iraupen bereko aldietarako, baina batzar orokorrak edozein unetan erabaki ahal izango du kargutik kentzea.

22. artikulua.- Administrazio-organoaren ordainsaria.

Administratzailea doan ariko da bere karguan.

23. artikulua.- Administrazio kontseilua.

1.- Administrazioaren ardura administrazio kontseiluak daukanean, kide hauek ariko dira bertan: lehendakaria, lehendakariordea eta zenbait bokal, gutxienez hiru eta gehienez bederatzi. Denak, bakoitza bere ezaugarriekin, batzar orokorrak izendatuko ditu.

2.- Idazkariaren kargua administrazio kontseiluak beteko du, baina kargu horretarako ez da beharrezkoa izango kontseilaria izatea. Idazkaria ez badago edo ezin badu bertaratu, kontseilari gazteenak ordeztuko du.

24. artikulua.- Administrazio kontseiluaren bilerak.

Administrazio kontseilua sozietatearen intereserako behar den guztietan bilduko da, sozietatearen egoitzan edo beste toki batean.

Administrazio kontseiluaren bileretarako deialdiak lehendakariak egingo ditu, edo haren ordezkoak. Gutxienez kontseiluko kideen herena osatzen duten administratzaileek ere deialdia egin ahal izango dute, eguneko gai-zerrenda zehaztuta, sozietatearen egoitza dagoen herrian biltzeko, baldin eta lehendakariak, eskatu arren, hilabeteko epealdiaren barruan egiten ez badu bidezko arrazoirik gabe.

Deialdia bilera-eguna baino bost egun lehenago gutxienez egin beharko da. Hori ez da beharrezkoa izango, eta kontseilua balioz bildu dela ulertuko da, baldin eta kontseiluko kide guztiak edo beren ordezkariak biltzen badira eta bilera egotea onartzen badute.

25. artikulua.- Administrazio kontseiluaren bileretara joatea.

Administrazio kontseilua behar bezala eratuta geratuko da gutxienez kideen erdiak eta bat gehiago bilduz gero (berak edo beren ordezkariak). Baliozkoak izango dira administrazio kontseiluak bideokonferentzia bidez edo askoren arteko telefono-konferentziaren bidez hartzen dituen erabakiak, baldin eta kideetako inor prozedura horren kontra ez badago, denek badauzkate horretarako behar diren baliabideak, eta elkar ezagutzen badute (hori guztia erabakien ziurtagirian eta aktan adierazi beharko da). Kasu horretan, kontseiluaren bilkura bakarra izan dela eta egoitza sozialean egin dela ulertuko da.

Bilkuretan, kontseiluko lehendakaria izango da burua. Zerbait erabakitzeko (ahalmenak modu iraunkorrean eskuordetzea ez beste guztia), aldeko botoa eman beharko dute gutxienez bilkuran dauden bokalen erdiek (berek zuzenean edo beren ordezkariek).

Bozketa idatziz eta bilkurarik gabe egiteko, ezinbestekoa izango ez egotea prozedura horren aurka dagoen kontseiluko kiderik.

V. TITULUA

SOZIETATEAREN ARAUBIDE EKONOMIKOA

26. artikulua.- Ekitaldiaren iraupena.

1.- Ekitaldi ekonomikoa egutegiko urtea izango da.

2.- Salbuespen gisa, lehenengo ekitaldia eratze-eskritura publikoa egilesten den egunean hasiko da.

27. artikulua.- Urteko kontuak, kudeaketa-txostena eta emaitza aplikatzeko proposamena.

1.- Sozietatearen ekitaldia ixten denetik gehienez hiru hilabete igaro baino lehen sozietatearen administrazio-organoak urteko kontuak aurkeztu beharko ditu, ezinbestean, eta horrekin batera kudeaketa-txostena, emaitzak aplikatzeko proposamena eta, behar denean, kontu eta kudeaketa-txosten bateratuak ere bai.

2.- Urteko kontuetan honako hauek agertu behar dira: balantzea, galera-irabazien kontua, ekitaldiko ondare garbiaren aldaketak erakusten dituen orria, kutxa-fluxuen orria eta memoria.

3.- Batzar orokorrak erabakiko du nola erabili ekitaldiko emaitza onartutako balantzearen arabera.

28. artikulua.– Aplikatu beharreko araubidea.

Estatutu hauetan ezartzen ez den guztirako, Kapital Sozietateen Legean xedatzen dena aplikatuko da gai hauetarako: balantzea, galera-irabazien kontua, memoria eta kudeaketa-txostena, eta mozkinak banatzeko proposamena prestatzea, egiaztatzea eta onartzea, eta, oro har, urteko kontuak onartzea, mozkina zehaztea, mozkina aplikatzea eta dibidenduak ordaintzea.

29. artikulua.– Zorra.

Sozietateak zorra onartzen edo sortzen duten obligazioak eta bestelako tituluak jaulki ahal izango ditu, inprimatutako serie zenbakidunean. Hori egiteko, indarreko Kapital Sozietateen Legean (uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako testu bategina) ezartzen diren betebeharren araubidea bete beharko du.

VI. TITULUA

SOZIETATEA DESEGITEA ETA LIKIDATZEA

30. artikulua.– Xedapen orokorrak.

1.- Sozietatea desegiteari eta ondoren likidatzeari dagokienez Kapital Sozietateen Legean xedatzen dena aplikatuko da, salbuespen batekin: bilkuretara bertaratutakoen «quóruma» eta bozketak direla eta estatutu hauetan ezartzen dena aplikatuko da.

2.- Gobernu Kontseiluak baimena eman beharko du sozietateak beste batekin bat egiteko, zatitzeko edo desegiteko, ogasunaren arloko eskumena daukan sailak proposatuta, eta merkataritza-legeriaren arabera hartu behar diren akordio sozialak hartu baino lehen. Sozietatea deseginez gero, Gobernu Kontseiluak erabakiko du, bidezkoa denean, zer egin behar den sozietatearen hartzekoarekin.